
Erdi Aroa Euskal Herrian

Espazio politikoen bereizketa

Prozesu hori **Errekonkistaren*** hasieran gertatu zen, hainbat monarkia kristau sortu ziren garai berean. Hauek ziren aipatutako monarkiak: Asturiar leondarra mendebaldean, Iruñekoa ekialdean eta Gaztelakoa hego mendebaldean.

*711. urtean musulmanek iberiar penintsula menderatu zuten. Orduan galdutako lurraldeak berreskuratzeko prozesuari deritzo "Errekonkista".

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko espazio politikoen bereizketa.

- **IX-X:** IX. eta X. mendeetan Arabako kondeak asturiar leondar erregeekin bat eginda zeuden.
- **XI:** XI. mendean, Antso III.a *Nagusiaren* erregealdian, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia Iruñeko erresumaren barruan gelditu ziren.
- **XI:** XI. mendeko azken laurdenean, Araba, Bizkaia eta Durango aldea Gaztelako Alfontso VI.aren eragin eremuaren pean gelditu ziren.
- **XII:** 1134tik aurrera Gartzia Ramirezek eta haren seme Antso VI.a Jakitunak euskal lurraldeak berreskuratu zituzten.
- **XIII:** 1200. ean Alfontso VIII.ak Gaztelako koroaren mende jarri zituen behin betiko Araba, Gipuzkoa eta Durango aldea. Bizkaia 1180tik zegoen Gaztelarekin bat eginda. Durango aldea eta Enkartazioak pixkanaka joan ziren Bizkaiarekin bat egiten XI. mendetik XIII. mendera bitartean.

Baskoniako dukerriak Euskal Herri kontinentaleko bizkonderrien eraketara

Nobleek mendetasun feudala zuten Frantziako erregeekiko, baina gertutasun geografikoaren ondorioz eta antzeko ohitura eta usadioak zituztenez, hartu eman dinastiko estuak izan zituzten Pirinioez bestaldeko agintariekin.

1063. urte inguruan, Akitaniako dukerriak eta Gaskoniako konderrriak (azken horretan hainbat bizkonderri zeuden: Lapurdi eta Zuberoa, adibidez) pertsona bakar baten esku gelditu ziren: Gilermo VIII.aren esku.

Akitaniako Gilermo X.aren alaba Leonor Enrike Plantagenetekin ezkondu zen 1152an, eta Enrike hori Ingalaterrako Enrike II.a bihurtu zen 1154an. Bikotearen lehen semeak, Rikardo *Lehoi-bihotzak*, Akitania eta Gaskonia jaso zituen herentzian, Ingalaterrako monarkiarako, eta politika zentralizatzaile eta zapaltzailea ezarri zuen jarrera zentrifugoei aurre egiteko.

Politika hori agerian gelditu zen Lapurdi eta Zuberoako bizkonderrian. Rikardo *Lehoi-bihotzak* kanpaina militarra antolatu zuen bizkonderria menderatzeko, eta Baiona hartu zuenean (1177) eman zion amaiera. Azken bizkondearen ordezkari erregearen funtzionario bat jarri eta bizkonderria bi zatitan banatu zuen (1190): Lapurdi, batetik, eta Baionako hiria, bestetik.

Ingelesen agintaldian susperraldi demografiko eta ekonomikoa izan zuten, eta bestalde, Baionako portu-hiriak administrazio-autonomia eskuratu zuen Ingalaterrarekin zuen merkataritza-harreman sendoari esker, besteak beste.

Antso VI.a *Jakitunak* eta Akitaniako Leonorrek seme-alabak ezkondu zituzten (1191): Berengela alaba eta Rikardo *Lehoi-bihotza*, alegia. Ezkontza horri esker Nafarroako koroak Nafarroa Behereko lurak menderatu eta bereganatzea lortu zuen, eta gero, Antso *Azkarraren* eta Champagneko Teobaldo I.aren erregealdietan, sendotu egin ziren elkarren arteko harremanak.